

GOBERNU BATZARRA

2017 03 27

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita zazpian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar	
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	
Kontuhartzaitza:	
Ainhoa Molinos Zubiaurre	
	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.-Adif-ekin bi hitzarmen berritzea. Bata, Zuloaga auzoan kokatutako lur eremu bati dagokiona eta, bestea, Olarrainen kokatutako terreno bati dagokiona./ Renovación de dos convenios con Adif, uno, correspondiente a un terreno del Barrio Zuloaga y, otro, a un terreno del Barrio Olarrain.
	3.- Korrika 2017.- Diru-laguntza.
	4.-Tolosako Bizikidetza Foroari 2017ko diru-laguntza ordaintzeko proposamena.
	5.-9 eta 10/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko martxoaren 20an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Adif-ekin bi hitzarmen berritzea. Bata, Zuloaga auzoan kokatutako lur eremu bati dagokiona eta, bestea, Olarrainen kokatutako terreno bati dagokiona./ Renovación de dos convenios con Adif, uno, correspondiente a un terreno del Barrio Zuloaga y, otro, a un terreno del Barrio Olarrain.

Tolosako Udalak, trenbide ondoko RENFEren jabetzako hainbat terrenoren erabilpen eta okupazio tenporala tarteko, bi hitzarmen sinatu ditu urte

El Ayuntamiento de Tolosa firmó dos convenios para el uso y ocupación temporal de diversos terrenos situados junto a la vía del tren, propiedad de Renfe, en dos fechas

desberdinetan:

1- 1983ko martxoaren 1eko datarekin, Olarrain auzoan kokatzen den 670 m²-ko azalera duen eta trenbideko 595/590-595/632 kilometroen artean dagoen lur eremuaren erabilpenari dagokiona.

2- 1988ko apirilaren 1eko datarekin, Zuloaga auzoan kokatzen den 472 m²-ko azalera duen eta trenbideko 597/885-597/973 kilometroen artean dagoen lur eremuaren erabilpenari dagokiona.

Kontratu hauen iraupena urtebetekoa zen eta hilabetez hilabetez berritzen ziren automatikoki.

Erabilpenaren truke, Tolosako Udalak urteko kanon bat ordaintzen zuen, hilabetez hilabetez ordainketa zatikatuaren bitartez.

Kontua da eremu hauen kudeaketa, 2017. urteaz geroztik, ADIFen esku geratu dela eta, ondorioz, hitzarmen berri bat sinatzea beharrezkoa dela eremu bakoitzerako.

Hitzarmen berri hauen baldintza nagusiak jatorrizko berberak dira: azalera berak, urteko kanon bat eta iraupen zehatz bat.

Iraupenari dagokionez, bi hitzarmenak 8 urterako sinatuko dira eta, epea amaituta, hitzarmen berri bat sinatu beharko da.

Urteko kanonari dagokionez, bi kasuetan urteko 300 € ordaindu beharko dizkio Tolosako Udalak ADIFI, ordainketa bakarra eginez urte bakoitzeko otsailean.

Gainontzeko baldintzak bere horretan mantentzen dira.

Zuzendu beharreko puntu bakarra honakoa da: «lehen errebisioa 2017ko urtarrilaren 1ean izan behar du»ela dioen lekuan, "2018ko" esan beharko du.

distintas:

1- Con fecha 1 de marzo de 1983, la correspondiente al uso de una franja de terreno del km 595/590 al 595/632, de 670 m², en el barrio Olarrain.

2- Con fecha 1 de abril de 1988, la correspondiente al uso de una franja de terreno del km 597/885 al 597/973, de 472 m², en el barrio Zuloaga.

La duración de cada contrato era de un año, prorrogable, automáticamente, por plazos sucesivos de un mes.

El Ayuntamiento de Tolosa abonaba un canon anual, pagadero por mensualidades, por el uso de estos terrenos.

La cuestión es que, desde el año 2017, es ADIF quien gestiona estos terrenos, por lo que es necesario firmar un nuevo convenio por cada terreno.

Las condiciones principales de estos nuevos convenios no varían: mismas superficies, canon anual y una duración concreta.

En cuanto a la duración, los dos convenios se firmarán por 8 años, y una vez finalizado ese plazo, habrá que firmar un nuevo convenio.

En lo que corresponde al canon anual, en los dos casos el Ayuntamiento de Tolosa deberá abonar a ADIF 300 euros, en un solo pago anual efectuado en febrero.

Las demás condiciones se mantienen.

El único punto que se debe corregir es el siguiente: donde dice «la primera revisión se efectuará el día primero de enero del 2017» debe decir 2018.

Udal ingeniariak egin duen txostenean justifikatzen da lursailak erabiltzeko beharra.

El informe redactado por el ingeniero municipal justifica el uso de estos terrenos.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan izanda Udalaren interesekoa dela lur horiek erabiltzen jarraitzea, eta Hirigintza batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorri, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, y teniendo en cuenta que es interés del Ayuntamiento seguir utilizando estos terrenos, y de conformidad con el dictamen emitido por la Comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.- Errentan hartzea Olarrain auzoan kokatzen den 670 m²-ko azalerako lur eremua, trenbideko 595/590-595/632 kilometroen artean dagoena, ADIFen jabetzakoa dena, eta, horretarako, dagokion kontratu zirriborroa onartzea, honako zuzenketa honekin: «lehen errebisioa 2017ko urtarrilaren 1ean izan behar du»ela dioen lekuan, “2018ko” esan beharko du.

PRIMERO.- Tomar en arrendamiento la franja de terreno del km 595/590 al 595/632, de 670 m², propiedad de ADIF, en el barrio Olarrain, y, para ello, aprobar el borrador de convenio correspondiente, con la siguiente corrección: donde dice «la primera revisión se efectuará el día primero de enero del 2017» debe decir 2018.

BIGARRENA.- Errentan hartzea Zuloaga auzoan kokatzen den 472 m²-ko azalerako lur eremua, trenbideko 597/885-597/973 kilometroen artean dagoena, ADIFen jabetzakoa dena, eta, horretarako, dagokion kontratu zirriborroa onartzea, honako zuzenketa honekin: «lehen errebisioa 2017ko urtarrilaren 1ean izan behar du»ela dioen lekuan, “2018ko” esan beharko du.

SEGUNDO.- Tomar en arrendamiento la franja de terreno del km 597/885 al 597/973, de 472 m², propiedad de ADIF, en el barrio Zuloaga, y, para ello, aprobar el borrador de convenio correspondiente, con la siguiente corrección: donde dice «la primera revisión se efectuará el día primero de enero del 2017» debe decir 2018.

HIRUGARRENA.- Alkateak bi kontratu horiek gauzatzea Tolosako Udalaren izenean.

TERCERO.- Formalizar por la alcaldesa los dos convenios en nombre del Ayuntamiento de Tolosa.

3.- Korrika 2017.- Diru-laguntza.

Aurtengo martxoaren 30etik apirilaren 9ra euskararen aldeko 20. Korrika egingo da Euskal Herri osoan barrena.

Korrika honen helburu garrantzitsuenetakoak dira euskaltegiek eta gau-eskolek egiten duten lana sustatzea eta euskalduntze-alfabetatzearen beharrak asetzeko bitartekoak eskuratzea.

Hori dela eta, Korrika 20ren antolatzaileek diru-laguntza eskatu diote Tolosako Udalari.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 21eko Osoko Bilkuran Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2017-2019 epealdirako.

Plan estrategiko horretan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza atalean, euskara sustatzeko helburuarekin, 1.000 euroko diru-laguntza ageri da izendatuta 0900.481.01.335.10 partidaren Korrika ekimenarentzat, 2017ko udal aurrekontuen kargura.

Era berean, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak, 2017ko urtarrilaren 26an, proposatu zuen 1.000 euro ematea Korrikari laguntzeko.

Hortaz, kontuan harturik aipatutako aurrekariak, udal txosten teknikoak eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak egin duen proposamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Korrikari 1.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea 2017ko udal aurrekontuetako dagokion partidatik.

BIGARRENA.- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

4.- Tolosako Bizikidetza Foroari 2017ko diru-laguntza ordaintzeko proposamena.

Gaia mahai gainean geratu da.

5.- 9 eta 10/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **9/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **2.387,39 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **9/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **10/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **190.396,01 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 10/2017 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA